

KUDEAKETA-POLITIKA

Hauek dira Cleceren **oinarri estrategikoak**:



JASANGARRITASUNA eta LIDERGOA

Eragiten dugun sektoreetako liderrak izan nahi dugu. Horretarako, hazkunde jasangarriaren alde egiten dugu, gure zerbitzuen kudeaketa zorrotz eta eraginkorra egiten dugu, gure bezeroen gogobetasuna eta hobekuntza xedetzat hartuta, baliabideak optimizatzen ditugu eta tokian tokiko, eskualdeko eta maila globaleko sinergiak bultzatzeko egiten dugu lan. Horiek dira gure konpainiaren hazkundera azaltzen duten gakoetako batzuk.



KONPROMISO SOZIALA

Enplegua sustatzea eta aukera-berdintasuna bultzatzea dira Cleceren xede nagusietako batzuk, lana lortzeko arazoak dituzten pertsonen integrazioa baliatuz. Pertsona horiek talde sozial kalteberetako kide dira: dibertsitate funtzionala duten pertsonak, gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak, genero-indarkeria jasaten duten emakumeak eta gazte langabeak.



SEGURTASUNA eta OSASUNA

Clecerentzat pertsonak dira balio garrantzitsuena. Gure langileentzako Segurtasunaren eta Osasunaren kudeaketa eraginkor bat garatzeko asmoz, Segurtasunari eta Osasunari dagozkion printzipioak ezarri ditu, enpresan jarduera prebentiboen integrazioa bultzatzeko, bai kate hierarkiakoan, bai ekoizpen-prozesuan.



INGURUMENA

Konpromisoa hartu dugu kutsadura saihesteko, ingurumena babesteko, gure energia-kontsumoaren eta gure bezeroenaren eraginkortasuna hobetzeko, atmosferara CO2 isurketa gutxiago egiteko eta alderdi interesdun guztiak ingurumenari buruz sentsibilizatzeke.



OINARRI ETIKOAK

Konpromisoa hartu dugu integritatean, gardentasunean eta zintzotasunean oinarritutako lan-jarrera bat izateko; hau da, indarrean dagoen legeria betetzea eta gure bezeroen eta ezarritako kudeaketa-sistemen irizpideak betetzea: kalitatea, ingurumena, eraginkortasun energetikoa, elikagai-segurtasuna, informazioaren babes, berrikuntza teknologikoa eta ardura sozial korporatiboa. Jarrera etiko horiek eguneroko jardunean bermatuko dituzte langile guztiak.



BERRIKUNTZA

Gure zerbitzuetan aplikatu daitezkeen prozesuak eta teknikak hobetzeko, garapen eta berrikuntza berriak bilatuko ditugu. Horrek I+G+B sektorean punta-puntako enpresa gisa kokatzen lagunduko digu, ekoizpena eta bezeroen gogobetasuna hobetuz.

Fdo. Cristóbal VALDERAS ALVARADO
Presidente exekutiboa